



Zubiganekoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Zubigane
Ahozkoa: Subígane

*“... la casa molino nombrada
Zuviganekoa en jurisdicción de
la anteiglesia de Berriz, mide la
casa una superficie de cuarenta
y nueve estados o sea ciento
noventa y seis metros cuadrados
con su presa, cauce y derechos
de agua...”
DJE 7/5 or. (1906)*



43° 9' 53"

2° 34' 32"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri-errota honen gainean aurkitu dugun lehen aipu dokumentala 1770ekoa da: *Zubiganekoa* (1770, BAHp, A134/1. or.). Hortik aurrera, ia aldaketarik gabe mantendu da izena gaur egun arte. Idazteko orduan aurkitzen ditugu aldaketa bakarrak *S* edo *Z* hizkiak idaztea dira: *Subiganekoa* (1808, BAHp, A139/10.) eta *Zubiganekoa* (1906, DJE, 7/ 213. or.); forma gehienek, ordea, *Z* darabilte. Auzotarren artean, *Zubigane* moduan ezagutzen da ere, eta hortik dator ahozko forma, hots, *Subigane*.

Baserri eta errota izandakoa da, eta, gaur egun, bizitza biko etxea. 2006. urtean zeharo eraberritu zuten, Berrizko beste baserri zaharrago batzuen itxura emanaz. XVIII. mendeko etxe hau guztiz luzituta eta pintatuta zegoen. Ez

zuen interes handirik sortzen, eta orain, berriz, etxe ederra eta koloretsua bilakatu dute, harria, horma pintatuak, egurrezko egitura eta adreilua konbinatuz. Beheko solairuan harria da nagusi, zaharra zein berria, eta baoetan, egurrezko dintelak zein harria ditu. Lehenengoan, horma luzituak eta egurrezko egitura ditu, adreiluzko hormekin, eta ganbaran, ere, beste horrenbeste. Aurrealde guztian aterpe bat egin dute bi muturretan, fatxadarekiko perpendikular doana, etxe zaharraren ereduari jarraituz. Horretarako, zutoinak dituzte, eta erdian, toskanar kolomak erabili dituzte. Teilatua bi isurkikoa dauka, eta, tarteka, hegalaria eusteko, egurrezko habeak ditu.

toponimia

Garai batean Zubia izeneko etxe bakarra zegoen baina bigarrena eraikitzeak ekarri zuen berezitu beharra eta azpikoa eta ganekoa gehitu zitzairen. Hala eta guztiz ere Azpikoa beti agertzen bada era goikoari ez zitzaion beti Zubiganekoa esan eta askotan Zubia huts hutsean ageri zen. Etxe bi dagoen kasuetan hau nahiko arrunta da aski baita bati bereizgarri bat jartzea biak ez nahasteko (Zubiazpikoa <> Zubia). Gaur egun zubiak oso arruntak direnez ezin dugu imajinatu zer nolako garrantzia zuten XX. mendera arte. Askotan udal baten diru "galerarik" handiena izaten zen herri zubiak zutik edukitzea eta sarritan egurrezkoak ziren ez baitzegoen harritzkoak egiteko dirurik.